

DROGETEN

ITTURRI

Ermuko eta Mallabiko aldizkaria
2025eko MAIATZA · 344 zenbakia



Euskararekin gozatzen!



IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Adua Aho Kirurgian,
Periodontzian, implantologian.
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgian.
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Autran Institutua. Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Doktorea.

Astelehenetik ostiralera:

8:00etatik **22:00**etara

Zapatuetan:

10:00etatik **14:00**etara

Irribarreetan adituak

Etor zaitez gu ezagutzera

Zure beharretara egokitutako finantziazio-planak

JARRAI IEZAGUZU

 **Facebooken:** Clínica Dental Irazabal www.clinicairazabal.com



IRAZABAL
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1 esk. - **20600 EIBAR**
Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

Gaia: Ume-kantua

Un don din palillo

(Entzuteko: www.alboka.es)

Un don din
palillo bat
galtzontzillo bi.
Koketa más koketa
koketa palillo,
los niños en la playa
porron pon pon.

Niño vete a Portugalete,
comerás pan francés,
italiano, inglés.
Una, dos y tres.



drogetenitturri.eus



ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale zeharbidea 2, 1.
247 posta-kutxa
943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com
www.drogetenitturri.eus

ERREDAKZIO TALDEA:

Alazne Aiestaran,
Eneritz Aranburu,
Estibalitz González,
Nahia Ruiz Albizuri
eta Dorleta Vidal.

KOORDINAZIOA

ETA MAKETAZIOA:

Dorleta Vidal.

AZALEKO ARGAZKIA:

Ainhoa Lasuen.
Edizioa: Dorleta Vidal.

LAGUNTZAILEAK:

Patxi López, Valentin Mugarza,
Iratxe Odriozola, San Lorenzo
Eskola eta Libe Solozabal.

ARGAZKIAK:

Errotabarri Eskubaloí Kirol Elkarteak,
Estibalitz González, Asier
Mallabiabarrena, Valentin Mugarza,
Iratxe Odriozola, Marijo Ramos,
Nahia Ruiz Albizuri, Olatz Santos,
San Lorenzo Eskola
eta Dorleta Vidal.

PUBLIZITATEA:

943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Maren Aguirre, Manex Prieto
eta Alex Gonzalez.

TIRADA:

2.425 ale.

ISSN:

1133-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/1994.

*Drogetenitturrik ez du bere gain
hartzen aldizkarian adierazitako
iritzien erantzukizunik.*

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



ERMUKO UDALA



MALLABIKO UDALA



Asier Mallabiabarrena · Berlin

“Euskal Herrian jendea pozago bizi da, nahiz eta hemen beste diru ez izan”

Asier Mallabiabarrena ermuarrak hamabost urte daramatza Berlinen. Urte gutxi batzuk geratzeko asmoarekin joan zen, baina azkenean plana luzatu egin zaio.

Testua NAHIA RUIZ ALBIZURI

Zer dela-eta joan zinen Alemaniara?

2007an Gradu Amaierako Lana Munichen egin nuen eta, bertan nengoela, pare bat aldiz Berlinera etorri nintzen bisitan. Berlin beti gustatu izan zait, hiri berezia iruditzen zait. Gehiago ezagutzeko gogoarekin geratzen nintzen beti: nahiz eta bospasei egun joan bisitan, laburra egiten zitzaidan! Horregatik, 2010ean lagun batek eta nik erabaki genuen hona etortzea alemana ikastera. Ezer gabe etorri ginen, ez etxerik, ez lanik, ezer ez! Aleman pixka bat bagenekien eta tabernetan ibili ginen lanean. Hilabete batzuk geratu behar ginen, baina pare bat urte igaro ostean, Espainia ere krisian egonda, jende guztiak esan zidan hemen geratzeko, eta 15 urte igaro dira.

Zertan egiten duzu lan?

Hasieran, tabernen eta gastronomiaren inguruan egin nuen lan, hizkuntza eskolan alemana ikasten nuen bitartean. Gerora, industria arlora igaro nintzen eta orain produktuen diseinuan nabil.

Zer moduz moldatzen zara gaur egun alemanarekin?

Hasieratik argi nuen alemanez ikasi beharko nuela ko-

munikatu nahi banuen: Euskal Herrian euskaraz eta Alemanian alemanez. Hizkuntza bat ikastea kultura bat ikastea da, pentsaera bat, bizitza ikusteko beste ikuspuntu bat, beste umore bat... Aberasgarria da beti. Gaur egun ez dut ama hizkuntza izango balitz bezala hitz egiten, baina defendatzen naiz. Behar dudanean jendea bere lekuan jartzeko adina badakit! Badaude hitz batzuk guk erabiltzen ez ditugunak, adibidez: *doch*, esanahi asko dituen. Lagunei esaten diet alemanez asmatu zela eztabaidatzea asko gustatzen zaielako.

Zer egiten duzu lanetik kanpo?

Oso desberdina da turismoan etortzea edo hemen bizitzea, beste hiri askotan pasatzen den bezala. Ni ez naiz ia hirigunera joaten, bisitak datozenean bakarrik. Bizitza auzoan egiten dut: lagunekin geratu, parkera joan, zerbait hartu, kirola egin... Berlingo jende gehienak ez dauka bikotekiderik, eta ez dira familia asko ikusten, aisia ez doa familia ingurura bideratuta.

Badago zerbait oso desberdina dena?

Bai, gauza asko. Alemanak oso hotzak dira, eta denborarekin konturatzen zara zein garrantzitsua den

Ferreteria
ANBOTO
Burdindegi

Orain
KOTXKO GILTZEN
KOPIAK ere
egiten ditugu

943 17 69 76
607 33 11 77

ZUBIAURRE, 25
ERMUA (BIZKAIA)

www.ferreteriaanboto.es

Bitxi-denda Tailor prezipica Erloji-denda

Senén
1978

Diseinuak eta kalitateak
bereizten gaituzte

San Pelayo zeharbidea 4 ERMUA (48260) BIZKAIA
www.joyeriasenen.com - joyeriasenen@gmail.com

hanigan's
Irish Tavern

Gosari, bazkari eta afariak
eramateko prestatzen dugu

Asteegunetan 7:00etatik zabalik
Asteburuetan 10:00etatik.

Komentukua z/g - 941010527



egunerokotasunean jendearen berotasuna sentitzea. Euskal Herrian jendea laguntzeko prest egoten da eta hemen ez dut hori ikusten. Berotasun horrek bizitza erraztu egiten du. Asko botatzen dut faltan. Gainera, uste dut Euskal Herrian jendea pozago bizi dela, nahiz eta horrenbeste diru ez izan. Hemen jendeak diru gehiago dauka, baina gehiago kexatzen da, ez ditu gauzak asko baloratzen. Bestalde, asko eskertzen dut adibidez garraio publikoan isiltasuna errespetatzea. Gustatzen zait goizetan, metroa beteta egon arren, isiltasuna egotea. Konturatu naiz ere oso altu egiten dugula berba: etxera joatean konturatzen naiz tabernek musika altu dutela eta guk ere altu hitz egiten dugula. Batzuetan saturatu egiten naiz eta kanpora irten behar naiz: tolerantzia handia diogu zaratari! Etxera bueltatuko banintz, faltan botatuko nuke isiltasuna. Asko gustatzen zaidan beste gauza bat da bizikletan erraz mugitu ahal izatea, bizi-kalitatea da.

Zer aldatu da hirian zu bertara joan zinenetik?

Oso hiri txiroa zen eta 2010era arte, oraindik erreku-peratzen ari zen. 2015etik aurrera hiria aberasten joan zen, eta era berean, bere xarma galtzen. Urte horretan *start-up hub* bat egin zen, hau da, ekintzaileentzako eta enpresa berrientzako zentro bat. *Start-upek* ez zuten asko ordaintzen eta gazte asko hona bizitzera etorri ziren, baina arrakastaren ondorioz hiltzen ari da: estatubatuar asko etorri dira eta alokairuen mundua, Espainian gertatzen den bezala, aldatu dute, eraikin asko erosiz. Alokairuen inguruko lege bat zegoen, baina pandemia ostean alokairuak % 300 igo dira. Lehen hiri oso merkea zen eta diru gutxiarekin bizi-kalitate ona zegoen, baina orain ez. Asko garestitu da dena, eta ekonomikoki, Alemania ez dago lehen zegoen toki berean. Lehen artista asko etortzen ziren, merkea zelako; gaur egun joan egin dira: artista aberatsa ez bazara



ezin zara jada hemen bizi! Bestalde, Euskal Herrira bueltatuko banintz, asko eskertuko nuke osasun sistema ere: hemengoa erdi pribatua da eta ez litzaidake gustatuko hemen zahartzea. Etxean ditugun medikuek era erizainek urrea balio dute, eta eskertu behar dugu.

Zein da bertako janari tipikoa?

Currywurst: saltxitxa bat ketchuparekin eta curry-rekin. *Bulettena* ere oso ohikoa da: haragi-bola siku baina oso goxoa, hori da gehien gustatzen zaidana. Badago ere *kartoffelpuffer*, patata zapaldu bat albondiga formarekin, nahiko goxoa egoten dena. Ez da munduko beste ezer: Euskal Herritik gatozenontzat hemengo janaria ez da bereziki ona. Niri ez zait janari alemana asko gustatzen, baina munduko beste tokietako jatetxe asko dago, eta asiarrak ditut gustuko. Bitxia da ere, guk ezagutzen ditugun kebabak turkiar batek asmatu zituela Berlinen.

Faltan botatzen duzu Ermua? Itzultzeko gogorik?

Bai, Ermua, Euskal Herrira, familia, lagunak, janaria, mendia eta itsasoa botatzen ditut faltan. Baita jendearen izaera ere, oso desberdinak baikara. Etxera joatean eskertzen dut jendearekin kontaktuak erraz egin ahal izatea, edonon, hemen askoz ere zailagoa baita. Muxu bat Ermuko eta Mallabiko jendeari!

Yoga onkologikoa, gaixotasunean bidelagun

90. hamarkadan jaio zen yoga onkologikoa, hain zuen ere, minbizia daukaten edo izan duten pertsonen egokitutako ariketak lantzen dituen yogaren adarra, eta haren onurak dira, besteak beste, errehabilitazio fisikoa eta emozionala. Ermuan, yoga onkologikoa lantzen duen lehen taldea sortu zen urtarrilean, eta haren irakaslea den Olatz Santos ermuararren eta taldeko kide batzuen testigantzak jaso ditugu.

Testua **DORLETA VIDAL**

Iazko urrian, Ermuko Jubilatuen Etxeak eta Burulogy enpresak egitarau zabala prestatu zuten Adineko Pertsonen Nazioarteko Eguna ospatzeko. Tartean, yoga onkologikoaren gaineko hitzaldia burutu zen, eta Olatz Santos yoga irakaslea haren ezaugarriak eta onurak azaldu zizkien bertaratu ziren guztiei. Gaiak interes handia sortu zuen, eta erabiltzaile talde batek ikastaroa martxan jartzeko eskaera egin zuen Jubilatuen Etxean. Hilabete batzuk igaro ziren leku aproposa topatu arte, baina urtarrilean zerbitzua martxan jarri zen, eta ordutik Lobiano Kulturguneko antzerki aretoan biltzen da asteazkeneko yoga onkologikoa praktikatzeko duen taldetxoa.

Klasea Jubilatuen Elkarteko erabiltzaile guztiei zuzenduta dago (nahiz eta jubilatuek lehentasuna daukaten), bereziki prozesu onkologikoa igarotzen ari diren edo igaro duten pertsonen. "Haien senideak ere ongi etorriak dira, gaixorik daudenak ezin badira klasera etorri edo probatzeko zalantzak badituzte", argitu du Olatz Santosek. Hala ere, momentuz, emakumeak dira izena eman duten bakarrak. "Jendeak erreparoa dugu, batez ere gizonek, eta gazte askok ere. Minbizia tabua izaten jarraitzen du, eta askotan ezkutuan eramaten saiatzen da, kalean galderak eta zurrumurruak saihesteko. Gainera, yogari "onkologikoa" abizena jartzera-

koan, mesfidantzak areagotu egiten dira. Eta bitxia da, tradizioan, gizonak izan direlako yoga praktikatu izan dutenak, baina azken urteotan, emakumeak dira nagusi esparru horretan".

Klaseen egitura

Erabiltzaile gehienak ezjakintasunetik abiatu ziren ikastaroan, kalean kartelak ikusita, ekintza berria probatzeko asmoarekin; beste batzuk, ahotik aho-ra entzunda gerturatu ziren. "Aurretik yoga egiten nuen —esan du erabiltzaile batek—, eta honen berri izan nuenean izena eman nuen. Lehen klasea eta gero, lagun bati deitu nion, gero beste bati... Gaixotasunak eragindako ezintasun ezberdinak ditugu, baina ariketak gure egoera fisikora egokituta daude, eta haietako asko etzanda egin beharrean, eserita egiten ditugu, esaterako".

Yogako klase arruntek lau zati dituzte: arnasketa, eguzkiari agurra, posturak eta erlaxazioa, baina San-

"Asanak edo jarrerak eusteaz baino, artikulazioak hidratatzeaz arduratzen gara"



Olatz Santos yoga irakaslea ikasle batekin.

tosen esanetan, yoga klase arrunta edo yoga onkologikoko klasea prestatzerako orduan ezberdintasun handiak daude. "Kasu honetan, *asanak* edo jarrerak eusteaz baino, artikulazioak hidratatzeaz arduratzen gara batez ere. Tratamendu ezberdinen ondorioz ehunek galdutako mobilitatea berreskuratzen saiatzen gara, bizkarreko minak arindu, sorbalden mobilitate murriztua hobetu... Lehen egunean ikasleei galdetu nien zer espero zuten klase honetaz, eta hori lantzen ari gara. Izan ere, yogak onura asko ditu, baina jarrera guztiak ez dira egokiak jende guztientzat. Bestalde, garrantzi handia ematen diogu arnasketari, eta zeregin horretan denbora dezente ematen dugu klaseetan. Arnasketa oso tresna potentea baita, sistema linfatikoa aktibatzeaz arduratzen dena, baina askotan ez dakigu behar bezala erabiltzen", argitu du.

Arimaren gimnasia

Yogak ez du minbizia sendatzen, azpimarratu nahi izan du Olatzek, baina adituen esanetan, yoga onkologikoak laguntzen du jasan behar ez dena sendatzen, eta sendatu ezin ez dena jasaten, eta horregatik bi esparru ezberdinetan eragiten du: fisikoa eta emozionalean. Onura fisikoei dagokienez, zerrenda amaigabea dela esan du ermuarrak: minaren kudeaketa hobea; nekea gutxitu eta bizi-kalitatea handitu; indarra, malgutasuna eta hezurren osasuna indartu; linfedemak kontrolatu eta gutxitu... Maila emozionalean ere mesede egiten du zenbait arlotan: ahalduntzea sustatzen du;

"Maila emozionalean, ahalduntzea sustatzen du, eta antsietatea, depresioa eta estresa gutxitu"

Datorren ikasturteari begira, asteko lansaio kopurua handitzeko eskaera egin dute



Artikulazioen zainketan eta arnasketan zentratzen dira klaseetan.

antsietatea, depresioa eta estresa gutxitu...

Horrez gain, "yoga onkologikoak ematen dizu aukera zure gorputzarekin bakeak egiteko —gogoratu du Santosek formazio saioetan ikasitakoa—. Sarritan, gaixorik zaudenean, gorputza etsai bihurtzen da. Gizarteak gaixotasun honetaz hitz egiteko erabiltzen duen lengoia bera ere oso belikoa da, eta gorputza bizitzen ari den borrokari buruz hitz egiten dute. Diskurtso horretan, nahitaez, burua eta gorputza deskonektatu egiten dira, eta hemen berrito ere bat egiten saiatzen gara".

Erabiltzaileek ere gauza bera deritzote, eta batzuk diote yoga arimaren gimnasia dela, eta alde fisikoaren onurak aipatzeaz gain, nork bere buruarekin egiten



**JOSE IBAIBARRIAGA
EGUREN**

1942/05/13 - 2025/04/10

Euskal Birusa Elkarte Kulturala



duen lanaren garrantzia azpimarratu dute: "Zeure buruarekin konektatzen duzu, zure senarekin, eta zure burua berriro maitatzen ikasten duzu; zure beharrak ere asetzen, eta ez bakarrik besteenak". Aldi berean, ikastaroari esker, parte-hartzaileek saretxoak sortu dute, eta antzerako prozesua igaro duten pertsonekin sozializatzeko aukera izaten ari dira: jendea ezagutu, bizipenak partekatu, bestelako ekintzetan elkarrekin izena eman, dantzan edo kantuan, esaterako, "eta hori ere oso-oso aberasgarria izaten ari da", azpimarratu dute.

Saioa bukatutakoan antzerki aretoko atea zabalitzen denean, erabiltzaileak pozik irteten dira, lasai, erlaxatuta, "laino batean bezala". Egindako ariketen ondorio da, jakina, baina, neurri handi batean, irakasleak eragiten du. "Bere jarrera, arreta eta gozotasuna ikaragarriak dira -nabarmendu dute erabiltzaileek aho batez-. Adi dago, etengabe zuzentzen digu jarrera desgogokiak baditugu, guretzat pertsonalizatutako ariketak prestatzen ditu, eta gu ondo eta eroso sentitzeaz ardurutzen da". Horiek horrela, astean ordubeteko saioa labor geratzen zaie, eta datorren ikasturteari begira, asteko lan-saio kopurua handitzeko eskaera egin dute.

Yoga onkologikoa 90. hamarkadan sortu zen, Estatu Batuetan. Garai hartan ikusi zen lehen aldiz yogak onurak izan zitzaizkela minbizia zuten pazienteetan, haientzako egokiak diren ariketak eginez gero. Ordu-tik garatzen joan da, eta mundura zabaltzen. Estatu mailan, Yoga Onkologikoaren Nazioarteko Sareak lan



Ikasleetako batzuk ariketak egiten.

ezberdinak egiten ditu gaur egun. "Ni haiekin formatu nintzen —azaldu du Olatzek—, senide bati laguntza eskaintzeko beharra sentitu nuelako. Sare horrek gero eta indar handiagoa du, eta Kataluniako ospitale publiko batzuetan klaseak eskaintzen dizkiete minbizia pairatzen ari diren gaixoei edo sendatzeko bidean daudenei, lagungarri izango zaielakoan. Bilbon ere hasi dira klaseak eta hitzaldiak ematen, eta datozen urteotan hedatzen joango da".



“Semeei esaten diet Parkinsonagatik gurpildun aulkian geratzen naizenean, Zarara eraman nazatela arropak ikustera eta ukitzera”

Marijo Ramos Garcia · Berbalaguneko jostuntza ikastaroko irakaslea



Berbalaguneko barixekueroko partaidie eta erropa josten trebie, emakume alai eta geldiezin da Marijo. Seme biren ama, Mallabixen 28 bat urte daroiez bizi izeten eta orain 7 urte parkinsona diagnostikatu eutsien. Gaixotasun horrek baina, ez deuse bizitza gozatzeko dauken grina kendu, ezta kenduko be.

Testua **ENERITZ ARANBURU**

Berbalagunen partaide moduen ezagutu zaittugu Marijo, eta orain jostuntza irakasle sartu zara...

Pasa den urtean Juanmiri komentatu nion Berbalagunen egitasmoaren barruan jostuntza klaseak emateko prest nengoela eta taldetxo bat antolatu genuen. Aurten ere ari gara eta oso gustora, niri bizia ematen dit. Guk ama ikusten genuen beti gauero guri soinekoak-eta josten eta guk ere jolasean, paperean josten genuen zuloak eginez. Askok gustatzen zait eta asko betetzen nauen afizio bat da. Gaztetan magisteritza ikasketak utzi nituenean jostuntza titulazioa atera nuen, patronajea, diseinua eta abar. Eibarko denda baterako egiten nituen amerikak baina, noizean behin, administrari egin izan dut lan bestela. Gero Osakidetzan sartu nintzen, eta umeak jaio zirenean utzi egin nion josteari. Juan Luis, nire senarra, entrenatzaile pertsonala da eta berandura arte egiten zuen lan gimnasioan... eta ez neukan astirik josteko.

Orain berriro ekin deusezu jostuntzari, eta euskaraz gainera.



"Ama ikusten genuen beti guri soinekoak-eta josten, eta guk ere jolasean, paperean josten genuen"

Parkinsonagatik jubilatuta nindutenean denbora neukan niretzat eta berriro ekin nion. Oso pozik nago, oso gustura. Berbalaguneko nire jostunei beti eskatzen diet barkamena, nire euskara maila ez delako hain ona, baina saiatzen naiz. Urte asko daramatzat euskara ikasten baina ez daukat erraztasunik... Nik uste dut parkinsonak ere eragin didala hizkuntzak ikasi eta menperatzeko orduan. Entzumena, kantua eta hizkuntzak ez dira nire fuertea; esku lanak, diseinua eta dekorazioa bai, asko gustatzen zaizkit. Detailleak zaintzea ez zait ezer kostatzen eta asko maite dut, oso "ñoñoa" naiz.

Orratza eta harixe esku artien erabiltterako orduen, parkinsonak oztopatzen zaitu?

Arrautzak irabiatzean konturatu nintzen zerbait neukala. Baina orain ez daukat arazorik, zazpi urte hauetan egindako lanari esker, eskuetako trebezia berreskuratu dut. Eta josteko ez daukat arazorik, ondo konpontzen naiz. Gaixotasuna hor dago eta azken lau hilabeteotan oinez ibiltzerakoan igarri dut atzera pausu bat, dantzaren ere bai, arin-arinaren bueltak ematerako orduan hankak trabatzen zaizkit. Amorrua ematen dit eta tristura, kaka bat da.

5-10 kilometroko karreretan be jarduten dozu korrika!



Ez zait batere gustatzen!! Baina esaten dizutenean bitzita kalitatea hobetzeko aukera bat dela, norbere esku dagoen guztia egiten du batek. Estatu Batuetako eta Kanadako estudio batzuek diotenez, korrika egiteak Parkinsonaren progresioa atzeratzen du. Zazpi urte daramatzat gaixotasunarekin eta kirola praktikatzea, dantzaren egitea, mugitzea eta elikadura egokia izatea oso garrantzitsua dela uste dut. Hartzen dudan medi-

Plan B
Coffee Lounge Gin & Beer

Torrealday
ZURE FINANTZA-OSASUNERAKO BAZKIDE ESTRATEGIKOA
ZERGA, LAN ETA KONTABILITATE AHOLKULARITZA ERMUA

Kopi-Fax
FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOA
INPRIMAKETAK KAMISETATAN
Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

KRABI
Ileapaindegia
Estetika
Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA

"Ez zait batere gustatzen korrika egitea, baina Parkinsonaren progresioa atzeratzen du"

"Ez naiz eredua, familiagatik egiten dut aurrera, baina etorkizunak beldur handia ematen dit"

kazio kantitaterako, zazpi urte denbora asko dela esan zidan neurologoak. Juan Luis entrenatzailea izatea neure alde eduki dut eta astean hiru aldiz joaten naiz Ondarrura gimnasia. Ostegunetan Bilbora joaten naiz, Asparbi elkartera. Han logopedarekin saioak, aktibazio kognitiboa, boxeo eta abar egiten ditut 13:00ak arte. Gero Bilbon bertan bazkaldu eta denda denda ibiltzen naiz. Neure burua behartzen dut kalean ibiltzera. Corte Inglesean arropak, koloreak, oihalak eta abar ikustea, ukitzea, probatzea gustatzen zait. Parkinsonagatik kosta egiten zait arropa probatzea baina behartu egiten naiz. Nire semeei esaten diet gurgildun aulkian nagoenean Zarara eraman nazatela arropak eta oihalak ikustera eta ukitzera.



Korrika, dantza, joskintza... eredu bat zara Marijo!

Ez naiz eredua, nire familiagatik egiten dut aurrera, baina etorkizunak beldur handia ematen dit. Parkinsonagatik oinez ibiltzen ahazteak, jateko arazoak edukitzeak, eta horrelako gauzek beldurra ematen

didate, baina horrek ez nau gelditzen. Ondarru eta Mallabiko jendeari oso eskertuta nago ematen didaten maitasun eta laguntza guztiagatik. Eta zer esanik ez etxekoei eta lagunei!



ZUZENBIDE KONTUAK
Lege eta kontu aholkularitza
Izarra Centre eraikina
Tel: 846080080
Mugikorra: 688885435
zuzenbidekontuak@gmail.com

JULEN




JULEN IZARRA GARRAIOAK

Bidegain kalea 1
48240 BERRIZ
636 958 339

AMAIA HARATEGIA



Bertoko Okelak
Probaleku 5
Tfnoa. 943 17 05 84
Ermua



IKASTOLA
1968tik Ermua euskalduntzen

Ekainaren 22ra arte iraungo du aurtengo Kultur Hamabostaldiak

Maiatzaren 8an hasi zen aurtengo Kultur Hamabostaldia, eta guztira hogeikintzatik gora burutuko dira herrian ekainaren 22a bitartean. Tartean izan dira 7 Pago mendi lasterketa edo Euskaraldia bezalako egitasmo jendetsuak, baina oraindik ere badago zer gozatu:

Maiatzaren 31n, larunbata

Mallabia Cup.

Goizean, Azkaldean. Benjaminaurrekoen eta benjaminen futbito txapelketa.

Arratsaldean, Eskolako frontoian. Benjaminen eta kimuen saskibaloitxapelketak eskolako frontoian (A.D. Mallabia F.T.).

Ezpatadantzari eguna

17:30 Kalejira.

18:00 Ekitaldia, parkean (euria bada, herriko frontoian).

20:00 Trikipoteoa tabernaz taberna (Gerediaga Elkartea eta Udala).

Ekainaren 1ean, igandea

10:00 Nekazaritza eta artisautza azoka plazan.

13:00 Gazte Alai dantza taldearen emanaldia.

Ekainaren 6an, ostirala

16:00 Denboraldi bukaerako jaia, Eskolan (A.D. Mallabia F.T.).

19:00 Biharko Izarrak txapelketa finala, herriko frontoian (Malle Euskal Pilota kluba).

Ekainaren 7an, larunbata

19:00 Udaberriko kontzertua: Mendibil abesbatza, Musikabia eta Gazte Alai dantza taldea, herriko frontoian (Mendibil abesbatza).

Ekainaren 13an, ostirala

18:00 Porrotx eta Marimotots: Amazonia gara! Haur ikuskizuna, parkeko aterpean (Udala).

Ekainaren 15ean, igandea

17:15 Bizkaiko Tornea pilota partidak: 4 t'erdikoak, binaka eta buruz burukoa, frontoian (Udala).

Ekainaren 21ean, larunbata

9:00 Emakumezkoen frontenis txapelketa bikoteka, herriko frontoian (A.D. Mallabia F.T.).

Ekainaren 22an, igandea

9:00 Emakumezkoen frontenis txapelketa banaka, herriko frontoian (A.D. Mallabia F.T.).



Trastelekuak
partikularrentzat



Biltegiak
enpresentzat

Gipuzkoa etorbidea 19 · Ermua
621 325 477 / info@lekubox.com
www.lekubox.com

DG
Horacio Decoración
TAPITERIA - ALIZABIAE - OSAGARRIAE



Vi Centenario 10 · Ermua
943 03 15 80 / 688 61 06 38
www.dghoraciodecoracion.com





Jon Albizu
Ainhoa M. Goitandia


Extremadura zeharbidea z/g
48260 ERMUA (Bizkaia)
Tel.: 943 174 505



Baldespina jauregiaren ondoan, zalditegi izandakoaren leiho txikia.
Argazkilaria: Estibalitz González.



1.083 ermuarrek parte hartu dute Euskaraldian



ERMUKO ENTITATEAK

81 entitatek eman dute izena.

Ze motatakoak?

Kirola: 7

Ostalaritza: 14

Osasuna: 2

Merkataritza eta zerbitzu
profesionalak: 30

Kultura: 4

Industria: 4

Hezkuntza: 9

Herri administrazioa: 1 (Udala)

Hedabidea: 1 (Drogeteniturre)

Gizarte mugimenduak: 8

Bestelakoak: 1

a...z GYM

Ae zentro mediko es-
tetikoa

Alboka Musika Eskola

Amaia Harategia

Anaitasuna Ikastola

Anaitasuna Ikasto-

lako Jantokiko Lan-
gileak

Anboto burdindegia

Antxitxiketan Euskal

Begirale Taldea

Argintxu

Artarrai Mendi Taldea

Asier harategia

Arkupe kafetegia

Ongarai HLHI

San Lorenzo HLHI

Centro Pedagógico

Kolokia

Club Saskibaloí Mon-

te Hermoso Ermua

Colibres

Cristina García

Disdira

Drogeteniturre

Egaña

Eguren

Enter

Eremu Zentroa

Ermua BHI

Ermua Blues CD

Ermua CD

Ermuko Ongarai Es-

kola Publikoa

Ermuko Berbalagun

Ermuko Ernai

Ermuko Gazte Asan-

blada

Ermuko Kaltxango

AEK euskategia

Ermuko Udala

Errotabari Eskubaloí

Elkartea

Eskilarapeko Ateneoa

Eskolabari Ikaste-

txea

Solozabal estankoa

Euskal Birusa Elkar-

tea

Fontaneria RIF 2015,

SL

Gauzak kinkila-denda

Giroa taberna

Goxo-Goxo

H2B Business Group

S.C.P.

Herga taberna

Ileasilviapelu

Infreñu taberna

Itze optika audio

Izagirre

Jai taberna

Karabixa taberna

Kokko

Kopi-Fax

Kukulaisi Euskaltza-
leen Topagunea

Madec

Manahmana Koop, E

Mari Asun loradenda

Miguel Harategia

Modas-Hogar Este-

ban Vieco

Monroe-ko Lan Ba-

tzordea

Nane

Naute urdaitegia

Nü Shu Gazte femi-

nistak

Oinak podologia

Osatu S.Coop (Bexen

Cardio)

Otro Plan

Palacios iturgintza

Parriaundi okindegia

Plan B

Quetzal

Sagarra taberna

San Pelayo ikastetxea

Sehiga

Senen erloju-denda

Sferico

Taup mugimendua

Torreku taberna

Txindurri dantza eta

txistu taldea

Urreta burdindegia

Xiripot

Zutik taberna



uriarte asesores ✓
Aholkularitza fiskala
eta lege aholkularitza
Komentukoa 3 behea · Tel. 943 179 040 · Faxa 943 179 197

LEIRE RASCO
BIZARTEGIA
ILEAPAINDEGIA
943 17 17 96
@LEYTHEBARBER
C/GOENKALE NS
ERMUA (BIZKAIA)

Txindurri Dantza eta Txistu Taldea: 50 urteko ibilbidea

Ermuan Euskal dantzak egin direnaren artikulua, argazki eta bestelako testigantza anitz dago. "Ermuatar gaste dantzakrieri" dioten brodatua daukan 1908 urteko banderatik hasita, 1932 urteko Madrilgo aldikari bateko argitalpen batera. Baita berrogeigarren eta berrogeita hamargarren hamarkadetako argazkiz osatutako bilduma ere. Horien guztien ingurukoak jaso ditu taldeko koordinatzailea den Iratxe Odriozolak hurrengo lerrootan.

Hirurogeigarren hamarkadan, Kimetz taldea aritu zen dantzan herrian, Blanquita Olañetarekin. Irakasleak Blanquita bera, Javier Arrieta, Roberto Aizpiri eta Joseba Idigoras izan ziren. Dantza agerketak ohikoak ziren herrian, solteko lehiaketetan parte hartzea bezalaxe.

Hirurogeita hamargarren hamarkadan, Anaitasuna Ikastola eta euskara eta euskal kultura sustatzen zuten erakundeen sorkuntza edo formalizazioa heldu zen. Testuinguru honetan, Ikastolan bertako dantza taldea egonda, herriko hainbat dantzarik eta ikastolako gurasoek, ofizialtasuna emateko asmotan, Txindurri Dantza eta Txistu taldea fundatu zuten.

Hau 1975 urteko urrian gertatu zen eta, bertan aritutakoek kontaktzen dutenez, Miren Bego Idigoras eta Txomin Ruiz izan ziren taldearen sustatzaile nagusiak: bata, lehen aipatutako Joseba Idigorasen alaba; bestea, Debatik etorritako dantzari eta dantza irakaslea. Herriko kuadrilletara jo zuten dantzari bila eta, horrela, 30 neska, 20 mutil eta 4 txistulariz osotutako taldea batu zuten.

Euren hitzetan, "era naturalean" joan ziren gauzak

egiten, beharren arabera. Taldearen izenarekin ez omen zuten zalantza handirik izan. Guillermo Bengoetxea "Txindurri" Ermuko pilotari eta bertsolariaren omenez, Txindurri izena aukeratu zuten. Logoa edo insignia Marcelino Onandiak egin zuen, Karlos Onandiaren aitak, inprenta bat zuelako.

Momentu hartan, aipatutako bi dantzari ez gain, Ikastolako hainbat irakasle eta guraso aritu ziren taldearen arduradun batzordean: Kontxi Zuazua, Arantza Castillo eta Modesto Saez de Zaitegi, besteak beste.

Taldea osatu eta 1976ko Euskal Jaieren antolaketan hasi behar izan ziren lanean. Ermuko I. Euskal Jaian gertuko 15 talde inguru hurbildu ziren dantzara eta, horren ostean, bai herriko bai inguruetako dantza ekitaldietan aritu ziren dantzan.

Estatutuen sorrera eta formalizazioa ez zen 1982 urtera arte heldu. Bertan sinatu zituzten taldearen estatutuak. Presidente Meliton Gonzalez, presidenteordea Jose Javier Maiztegi, idazkaria Santiago Miranda eta diruzaina Jesus Astola izan ziren. 13 guraso, irakasle eta dantzari osatua zegoen batzordea, eta urtero egin behar zuten batzorde aldaketa.

Diru-sarrera iturriak

Garai hartan sortutako ekimen guztietan bezala, finantzaketa zen buruhauste handiena. Instituzioengandik dirulaguntzarik jaso gabe, haurren matrikulazioak eta jaietan jarritako tabernetan batutakoa zen finantzaketa bakarra. 1986an eta 1989an argitaratutako artikuluetan oraindik salatzen zen egoera hau. Bertan adierazten denez hasierako kuota 750 pezetakoa zen. Beranduago 1.000 pezetara igo zen haurren matrikularen prezioa. 1994 urtean Gaizka Areitioaurtenak idatzitako artikulua batean adierazten da lehen aldiz "taldeak dirulaguntza nahikoa duela".

Bigarren buruhaustea entseguetarako tokia lortzea



Miren Bego Idigoras eta Jon Ander Mugerza, irabazle dantza soltean Mallabian.

omen zen. Horrela hasi zen Txindurriren “pelegrinajea” Ermuan zehar: elizaren sakristiaren azpiko lokaletan hasita, Gutierrez arropa-denda zegoen lokalera; bertatik, Teresa Murga Eskolara; handik, Santiago Apostol eskolara... Eta, azkenik, Anaitasuna Ikastolara. Bertan izan dira Txindurriko taldeen entseguak urte luzez, Lobiano Jauregia kulturgune bilakatu arte.

Entsegu hauek hasierako urteetan banatuta egiten ziren: neskak alde batetik, Miren Bego irakasle zutela; mutilak beste alde batetik, Txomin irakasle. Geroago, ekitaldiak nesken atala, mutilen atala eta bateratutako atal batekin egituratzen hasi ziren. Guztia bateratuta (entseatu eta dantzatzea) ez da 2010 hamarkadara arte gertatu.

Egindako dantzen errepertorioa eta, honi lotuta, jantziak eta dantzarako material kopurua era progresiboan joan ziren hazten. Laurogeigarren hamarkadan taldekideak inguruko dantza taldeei laguntza eskatzen aritu omen ziren dantzak ikasi eta horrekin batera arropa eta materialen ezaugarriak batzen, Txindurriko arropa eta material propioa izateko. Txindurriko arroparen sorkuntzaren arduradun handienetakoa Mari Karmen Urkidi izan da. Gaizka Areitioaurtena eta Marines Txurrukarekin batera gainontzeko taldeetan ikerketa lanak egin ostean, gaur egun oraindik Txindurriko lokalean dagoen arropen zati handi bat, bere eskuetatik irten baita.

Txistulariak

Ez dago dantzarik folklorean musika gabe, eta Txindurri, dantza eta txistu taldea da. Txindurri sortu aurretik baziren txistulariak herrian. Taldea sortzerakoan, solfeoa eta txistua irakasten hasi ziren haurrei, eta urte batzuetan zehar asteburuerok, larunbat goizetan, txistulari gaztetxoek taldeak diana jo ohi zuen herriko kaleetan zehar. Alboka Musika Eskola sortu zen arte. Ordutik txistua jotzen irakasten jarraitu izan da taldean, baina solfeorik ez.

Entsegu tokiekin beste erromesalditxo bat bizi izan zuten txistulariek. Sakristiako lokalak, Teresa Murga, Ikastola, Gure Etxea eta baita Ermuko antzinako



Txindurriko txistulariak diana jotzen 80. hamarkadan.

kalabozoak ere. Edozein toki zen ona! Denborarekin txistulari taldea murrizten joan zen astiro-astiro, eta gaur egun, taldean ez dago txistuko ikaslerik.

Taldeak Ermuko ekitaldi garrantzitsuenetan jotzeaz gain eta inguruko Euskal Jai eta Dantzari Eguneetara joateaz gain egin izan ditu bidaiak Euskal Herritik kanpora: 90. hamarkadan Allarizen, Andujarren, Baileñen, Mejian eta Vilanova i la Gertrun aritu ziren. 2010. hamarkadatik gaur egunera arte, Tui, Irlanda, Praga, Viena, Budapest, Cabanes, Gurrea de Gállego eta Adejen ibili dira dantzant. Aurten, gainera, Burgosen eta Fustiñanan dantzatuko dira Txindurriko dantzariak.

Gaur egun 100 haur daude taldean gutxi gorabehera, eta nagusien taldeak 25-30 kide inguru ditu. Urtean zehar inguruko Euskal Jaietara joateaz gain, herrian bertan hainbat ekitalditan parte hartzen dute: San Martin Azokan, Santa Zeziliako emanaldian, haurren Gabonetako ekitaldian, Olentzeroren erreketan, Hartza Egunean, Euskal Jaian, Txindurri Egunean, San Juan suan, Santixauetako dantza emanaldian eta, ikasturtea amaitzeko, Zezen Eguneko soka dantzant.

50. urteurrena ospatzeko, egitarau zabala prestatu dute Txindurriko arduradunek ekainaren 6a eta 8a bitartean (ikus aldizkariaren 30. orria).



ITURGINTZA - GASA - BEROKUNTZA
PALACIOS SM
 EMPRESA INSTALATZAILE BAIMENDUA
 GREMIOEN KUDEAKETA
 ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
 San Pelayo 26, beheka - Ermua (Bizkaia)
info@palaciosfontaneria.com / www.palaciosfontaneria.com
660 72 95 03 • 659 75 74 59 • 943 53 92 23

Inoizko emaitzarik onenak lortu ditu Errotabarri EKEk denboraldi honetan

Emakumezkoen eskubaloiak tradizio luzea dauka Ermuan, eta 2007an sortutako Errotabarri Eskubaloi Kirol Elkartea ere arrakastaren bidetik doa aspalditik. Dena den, 2024-2025 denboraldia bereziki ona izan da klubarentzat eta, lorpen handiak erdiesteaz gain, taldea berriak sortzea lortu du, neska guztiek jokatzeko aukera izan dezaten eta kategoría batetik bestera aldatzerakoan apurka-apurka trebatu ahal izateko.

Testua **DORLETA VIDAL**

Lauko Ermuko Errotabarri Senior taldea

Urte dezente daramatza Zilarrezko kategorian jokatzeko, iparraldeko sektorean, eta aurreko ligako bigarren sailkatu da. Horri esker, Toledoko Ciudad Imperial taldearen kontrako bi partida irabazi eta gero, Urrezko ligara igotzeko ligaxkan parte hartu du maiatzaren 16tik 18ra Zaragozan, Zaragozako Schär BM Coloresen, OAR Gracia Sabadellen eta Lleida Handbollen aurka. Errotabarriko lehendakaria den Leire Alvarezen eta delegatua den Alicia Lorenzoren esanetan, "talde handi horien ondoan, Errotabarri oso txikia da. Haiek beste baliabide batzuk dituzte, atzerriko fitxaketak, gastuak ordainduta... Gure jokalariek, aldiz, kuota ordaintzen dute jokatu ahal izateko. Pentsa! Hala ere, oso lan ona egin dute, eta benetan harro gaude". Ez zuten igoera lortu, eta datorren urtera begira, helburua da kategoriari eustea eta, ahal bada, Espainiako fasera heltzea, aurreko bezala.



Lauko Ermuko Errotabarri Senior taldea

Senior B taldea

Aurreko taldea da, eta Bizkaiko ligan aritu da, bosgarren postua eskuratuz. Jokalari gehienak oso gazteak dira, eta urteak zehaztasunarekin eskubaloian jolastu barik, pandemia garaian askok utzi baitzuten. "Klubarentzat garrantzitsua da Senior B taldea sortu izana, igotzen diren jubenilak trebatu ahal izateko Zilarrezko mailara jauzia eman baino lehen: erritmora egokitu, esperientzia hartu... Zilarrezko mailan dagoen senior taldearen aurreko pausua litzateke", azaldu dute Alvarezek eta Lorenzok.



Senior B taldea

Senior beteranoak

Aurreko sortutako taldea da, eta bertan jokatu ahal izateko hainbat baldintza bete behar dira, besteak beste, hogeita hamar urtetik gora izatea. Arauak eta partiden maiztasuna ezberdinak dira, baina irabazteak sortzen duen poza berdin-berdina da: "Gure beteranoek euren kabuz entrenatzen zuten, gozatzeko,

eta aurten Errotabarrin sartzeko proposamena egin ziguten, beterranoen ligan parte hartu nahi zuten-eta. Bizkaiko Liga jokatu dute emaitza onak lortuta, eta gainera Kopa irabazi dute".



Senior Beteranoak

Kadete Euskadi eta Jubenil Euskadi

Klub moduan kategoriaz igo dira 2024-2025 denboraldian, bi taldeen puntuak kontutan hartzen baitira klubaren sailkapena zehazteko, eta datorren urtean Euskal Ligan jokatu dute biek: euren adina kontuan izanda, dagoen mailarik altuenean, alegia. Denboraldiko emaitzei erreparatuta, Kadeteak Bizkaiko



Kadete Euskadi



Jubenil Euskadi

Ligako txapeldunak izan dira; Jubenilak, aldiz, Bizkaiko Ligako txapeldunordeak. Horrez gain, Kadete Euskadiko jokalariek Espainiako sektoreetan aritu dira maiatzaren 22tik 25era bitartean, eta bigarren sailkatu dira.

Kadete Urdinak

Bizkaiko B taldeko txapeldunordeak izan dira aurten, eta Kopako finalerdietara heldu dira. Datorren urtean, Bizkaiko B Ligan aritu beharrean, Bizkaiko Liga orokorrean arituko dira, Kadete Euskadi jada ez delako bertan jardungo, baizik eta Euskal Ligan, eurentzako tarte utzita. Izan ere, ezin dira klub bereko bi talde egon kategoria berean.



Kadete Urdinak



Infantil Zuria



Bizkaiko txapeldunordea izan da eta Espainiako sektoreak jokatu dituzte Redondelan (Galizia). Kanporaketako partida bat irabazi zuten eta hirugarren postua eskuratu zuten.

Infantil Zuria

Infantil Beltza, Morea eta Urdina



Infantil Beltza

bezala egin ahal izateko, entrenatzaile titulu nazionala duten prestatzaileak jarri nahi dituzte Errotabarriko arduradunek infantiletan ere, baina ez da lan erraza: "Asko kostatzen zaigu titulazioa duten entrenatzaileak topatzea eta bide horretan gaude".

Emaitzarekin pozik

Arduradunek azaldu dutenez, horrenbeste garaipenek areagotzen dute eskubaloia presentzia herrian, esku-



Infantil Morea



Infantil Urdina

saltzen hasi dela, taldearentzako diru-iturri bilakatuz.

Izan ere, aipatutako Espainiako sektoreak jokatzera joatea oso garestia da, eta aurrekontuaren zati handi bat autobusak ordaintzeko erabiltzen da. "Ermuko Udalak laguntza ekonomiko handia eskaini digu aurren, bidaiei zati handia finantzatu. Asko inplikatu dira eta eskertzekoa da, izan ere badakigu herrian beste behar batzuk ere badaudela".

Bestalde, Alvarezek eta Lorenzok azaldu dutenez, datorren urtera begira alaketak egongo dira Errotabarriko zuzendaritza taldean eta, sei urte pasatxo eta gero, Leire Alvarezk lehendakari kargua utziko du eta Jasone Izarrak hartu.

baloiarekiko jarrera onak sustatzen dituzte, eta eskubaloian jolasteko grina pizten dute. Horren adierazlea da jokalaria batzuk ezagunak egin direla herrian, eta beste ume batzuk haiek miresten dituztela; baita, kluba kamiseta dezente

mari asun
LORADENA

Diputazioa 9 - ERMUA - Tel. 943 174379

MALLA
ile-apaindegia

Probaleku 8. behea

© 943 17 18 50

CAPRI
PIZZERIA

943 03 33 15

arral

Luis Cañas
Amaren
Cair
Ehun
Txakoli Astobiza
Pazo Señorans
Cava Oriol Rossell

Cair
Casar de Burbia
Bodegas Valdemar
García de Olano
Manzanos Wines
Pernod Ricard Wines
Faustino García Martínez.

T.943176075

arral@arral97.com | Pol. Goitondo-Gaikoa, Parc. 7 - Pob. 1 | 48269 Mallabia (Bizkaia)

RIF

ITURGINTZA KONPONKETAK

Marques de Valdespina 16
ERMUA
605 71 10 81

Porrotx San Lorenzo Eskolan



irakasleak ezagutzeaz gain, irribarre sorta ederra eskaini, besarkada ugari eman eta muxu potolo asko banatu ditu. A! Eta lagun berri handi bat ere egin du: Lorenzotxo! Gure eskolako euskararen bihotza! Eskerrik asko, Porrotx!

Gu ere Euskaraldiarekin bat!



guztiaren argazkia atera dugu. Euskaraldiak iraun duen egunetan, euskararen inguruko hainbat ekintza aurrera eraman ditugu: Haur Hezkuntzatik hasita, maila bakoitzak jarduerak proposatu izan ditu eta gainerako ikasleak parte hartzerara gonbidatu dituzte. Horrela asmakizunak, onlineko jarduerak, olerkiak, bertsoak, Belarriprest eta Ahobizi lepokoak... ikasle guztien eskuetatik pasa dira. Bestalde, euskararen erabilera sustatzeko asmoarekin Ermuko gainerako eskolekin batera, irteera, jarduera eta jolas ezberdinetan ere parte hartu dugu.

Gure eskolak bat egin du maiatzaren 15etik 25era burutu den Euskaraldiarekin eta, horrekin lotuta, ondoan ikus dezakezuen i k a s t e t x e

Eskolako baratzea



Begira! A ze nolako errefau sorta irten den gure eskolako baratzean! Guraso talde bat animatu zaigu eskolako ortua eraberritzera. Horretarako, inguruko belar gaizto eta sasiak garbitu, ortuko baranda eta egurrak margotu edota Gerbasia txorimaloa egin dute. Ikasle talde ezberdinekin batera letxugak, errefauak, piperrak eta babarrunak landatu dituzte, ureztatu eta zaindu. Eta nola ez, azkenik uza batzea lortu dute. Ummm, goxogoxoak!





ZERMIK
SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT

ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikokoak garatzen espezializatua dagoen ingeniaritza-enpresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.



www.zermik.com
Usaetxe plaza 6-8, behea
Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)
Telf: 943 23 10 12

Komentukua dendia



1955. urtian dendatxo bat zabaldu eben Ino eta Maria Teresa Izaguirre Arregi ahiztak euren Komentukua etxeko behealdian, Zubiaurrera begira eta Caja de Ahorros Vizcaina zanaren onduan. Mercería-Tejidos Izaguirre izena ekan arren, herritarren ahotan Komentukua izango zan beti. Kinkilla kontuak izan zian eurenian nagusi: harixak, botoiak, telak, artillia, barruko erropia (dana zurixa, lanerakua ez bazan)... Baina drogerixa eta garbitxasunerako generua be erosi zeinkian bertan: lexibia, jaboia, ulerako laka, usain gozoko koloniak... Barruko erropak, pijamak, etxerako batak... kajetan etortzen ziran eta dendarixak erakutsi bihar izaten zotsan bezeruari; pertxatik saltziana gerora etorri zan. Koloniak be kristalezko litroko botilletan etortzen ziran, sueltuan saltzeko. Etxia 1967xan bota zanian, alditxo batez plazara lekualdatu ziran eta gero lehen egondakotik metro batzutara jarri eben denda barrixa, oingo Konbentukua kalia. 1995ian bi ahiztok erretirua hartu eben eta ordutik euron alaba Laura Olabe eta Idoia Urzainki dagoz dendian kargu.



 ORBE TOLDOS Y PERSIANAS	
Toldoak / Ostalaritzako muntaiak / Instalakuntzak eta konponketak Pertsianak / Seguratasun pertsianak / Pertsiana dekoratiboak Motorizazioa / Manparak / Estoreak / Eltxo-sareak	
Tallerra: Zearreko Buelta 2 943 17 66 34 - 630 01 13 41 48260 Ermua (Bizkaia)	Erakusketa: Karabixa 1 48260 Ermua (Bizkaia) 943 17 98 60 persianasorbe@gmail.com



LIBE SOLOZABAL

Kontsumoaren dilema

Kontsumitzea, beharrak zein nahiak asetzeko, ondasunak erabiltzea da. Espainiako Errege Akademiaren arabera (RAE), suntsitzea eta deuseztatzea ere kontsumitzearen sinonimo dira. Jakina da, gure gizartearen bizi maila beharren gainetik kokatzen dela, gure sistema ekonomikoa merkatu askatasunean oinarritzen delako eta produkzio baliabideak jabetza pribatua direlako. Denen ahotan daude izendatuko ez ditudan moda ultra azkarreko online enpresa txikizkariak. Egiaz, oso eskuragarria eta erraza baita edozer produktu eskuratzea haien bidez. Edonola ere, bildumen abiadura jarraitzezina da, joera berriak asmatzen dituzte etengabe.

"Atzean dauden baldintzak latzak dira (...). Denok kexu garen eta desiratuko ez genituzkeenak"

Baina zein da kostua? Atzean dauden baldintzak latzak dira: haurrak lanean, soldata oso prekarioak, azpiegitura penagarriak... Denok kexu garen eta desiratuko ez genituzkeenak. Norberarentzako eta ingurukoentzako onartezinak iruditzen zaizkigunak. Paradoxa.

Zer esanik ez ingurumeneari duen inpaktuaz. Arduragabekeriak kontsumitzean sortzen ditugun soberakinak gehiegizkoak dira, baliabide naturalak krisian egotera. Guztiz sostengaezina da.

Zaila da, ordea, hainbeste estimulatzeko gaituen sistemaren aurrean alternatibei eustea. Hala ere, existitzen dira eta eskuragarri ditugu. Ekonomia zirkularrak kontsumo arduratsuaren eredu jasangarriagoa sustatzen du, materiala berrerabiltzeko asmoz. Gure ondasunak, hala nola arropa, ez lirateke erabili eta botatzekoak izan beharko. Bigarren eskuko gauzen zirkulazioa bultzatzen duten merkatu eta aplikazioak aukera bat dira. Gauzei beste erabilera bat eman ahal zaie, konpontzen ikasi genezake edo erabiliko duen norbaiti eman. Ohitura kontua ere bada, egunerokotasunean aldatetako barneratzeak inpaktua du.

Zaila da, bai, hainbeste gustuko aukera eskuragarri ematen digunari uko egitea, baina benetan gure baliabideekin akabatzeke zorian dago.

TXARO FUENTES TOTORIKA

Ermuko plazan jaioa duela 57 urte. Aita salamankarra, ama ermuarra. Lau neba-arreben artean, nagusia. Ezkondata dago eta hogeita sei urteko alaba dauka. Hogeitaz baina gehiago daramatza Ikastolako jantokian lanean, eta Mallabiko auzo ezberdinetako umeak autobusean laguntzen eskolarako bidean.

Testua **DORLETA VIDAL**

Zure haurtzaroan pentsatzean, zer datorkizu burura?

Egun guztia ematen nuen plazan jolasten, bertan bizi nintzen-eta. Ongaraiko Eskolak egin zituztenean, zazpi-zortzi urte nituen, eta nire kabuz joaten nintzen eskolara, gurasoek lan egiten zutelako.

Zertan egiten zuten lan?

Aita, Emilio, Teodoro Zuazua eskolako irakaslea eta zuzendaria izan zen; amak, Irenek, ile-apaindegia zeukan etxean. Inguruko baserrietako emakumeak etortzen ziren amarenera apaintzera, eta haiekin eta amarekin euskaraz hitz egiten nuen. Aitak bere kabuz ikasi behar izan zuen, gu ulertu ahal izateko.

Plazan bertan bizi zinen...

Bai, gurasoek bertan bizi izan ziren nik bi urte bete arte, gero Mayban gozo-dendaren gainera joan ziren, eta han ere ile-apaindegia izan zuen amak. Denbora asko ematen nuen bi ahizpak eta neba txikia zaintzen.

Zer diozu gaztaroaz?

Parrandaz parranda ibili nintzen, Ermuan beti. Ostiralak nituen gustuko batez ere, eta gaur egun ere lagunekin ostiraletan elkartzen naiz. Asteburuko gainontzeko egunetan familiarekin egiten ditugu planak, baina hileko larunbat batean bazkari bat egiten dugu kuadrillakook herriko txoko batean. Hilabete bakoitzean bikote batek hartzen du bazkaria prestatzeko ardura.

Zer ikasi duzu?

Haur Hezkuntza, oso argi neukan txikitatik.

Eta esparru horretan egiten duzu lan?

Ez, ikasketak bukatu nituenean ama gaixorik neukan, eta ez neukan gogorik eskola batetik bestera ibiltzeko... Urte sabatikoa hartu nuen, eta euskaltegira joaten hasi nintzen, euskara hobetzeko. Segituan deitu zidaten Eibarko akademia batetik, eta urte mordo eman nituen bertan. 2001ean Ikastolako jantokian eta Mallabiko eskolako autobusean hasi nintzen lanean, eta bertan nago orduetik.

Zer da bi lan horietan gehien gustatzen zaizuna?

Umeekin harremana izatea, uste dut horrek gaztetu egiten duela, bizirik mantentzen zaituela.

Eguno umeak eta duela hogeitaz urtekoak berdinak dira?



Ez, alde handia igartzen dut, baina ez umeengatik baizik eta gurasoen jokabideengatik. Gaur egun umeak fiskalizatu egiten ditugu, kontrolatu, babestu, eskolaz kanpoko mila ekintzatarara eramane... Umeak kalera atera behar dira, jolastu eta zoriontsu eta aske izan.

Eskolako irakaslea ez izateaz damutzen zara?

Ez. Ez dut sekula filtrorik izan gauzak esaterako orduan, ez naiz oso diplomatikoa, eta praktikak egin nituenean, konturatu nintzen horrek arazoak ekarriko zizkidala gurasoekin eta lankideekin. Beraz, alde batera lagatzea erabaki nuen.

Non ezagutu zenuen senarra, Jon?

Euskaltegian nenbilenean, eskolak bukatukoan trago batzuk hartzen geratzen ginen-eta... Egia esan kostatu zitzaidan hark niri kasu egitea!

Zer egiten duzu aisialdian?

Lanegunetan, ez dut ezer egiten. Etxera heldu, freskatu eta irakurtzen dut, telebista ikusi edota bikotekidearekin hitz egiten dut... nire momentua da. Asteburuetan, gustatzen zait ibiltzera joatea, kostaldean egunpasa

egin, eta Athleticen partidak ikusten ditut.

Zein da irakurri duzun azken liburua?

Alaitz Leceagaren *Las dos vidas de Mina Indigo* irakurtzen ari naiz. Polizia-eleberria daukat gustuko eta liburu elektronikoan irakurtzen dut beti.

Bidaiatzea gustatzen zaizu?

Bai, asko. Penintsulako kostalde osoa ezagutzen dut (Portugal kenduta), irlak eta barrualdeko herri asko ere, eta gustatzen zait herri txikietako bizimodua eza-gutzea. Leku guztiek daukate bere xarma! Kolonbian ere egon naiz, eta pendiente ditut Mexiko, Argentina, Australia, Polinesia Frantsesa...

Musikazalea zara?

Bai, ia dena gustatzen zait. Ska eta rock & rolla gustatu izan zaizkit betidanik, baina reggaetoia ere gustatzen zait... Letrak ez direla egokiak? Gure garaiko abesti batzuk ere aztertzeke modukoak dira!

Telebistan zer?

Albistegiak eta telesailak.

Jatun ona zara?

Bai. Asko gustatzen zaizkit entsalada bereziak eta itsaskiak!

Kozinatzea gustatzen zaizu?

Bai, baina gauza bereziak, ez eguneroko platerak. As-teburuetan irratia topera jartzen dut, ardo kopa bat atera, eta gustura ibiltzen naiz sukaldean: salpikioa,

piper beteak, natxoak...

Biziorik?

Asteburuetan eta oporretan aperitiboa hartzea: *marianitoa*, ardo zuria, txakolina... eta pikatzeko zerbait!

Bertute eta akats bana?

Nahiko burugogorra naiz, baina alaia ere banaiz, eta lagunak lagun. Alabari ere erakutsi diot lagunak ondoan egon behar dela.

Zerk eragiten dizu barrea?

Umeen ateraldiek!

Eta zerk zure onetik atera?

Harrokeriak, injustiziak... gauza askok.

Erraz haserretzen zara?

Bai, zerbait ez bazait gustatzen ez dakit disimulatzen, eta pospolo bat bezalakoa naiz: berehala piztu, eta segituan pasatzen zait.

Lagunekin zaudenean, nahiago duzu hitz egin ala entzun?

Biak, asko hitz egiten dut, baina badakit entzuten.

Zer miresten duzu pertsona batengan?

Enpatia izatea. Bestearen lekuan jartzeko gaitasuna izatea, bestearen egoera ulertu... Uste dut guztiok egin beharko genukeen ariketa dela.

Puntuala zara?

Super puntuala!

Ondo moldatzen zara teknologia berrieekin?

Bai: ez naiz onena, baina nahiko ondo konpontzen naiz.

Zerbait egin ez izanaren pena daukazu?

Zaldian ibili!

Zein albiste entzun nahiko zenuke?

Asko: Gaza-Palestinarekin eta Ukrainarekin zerikusia duten albiste onak, esaterako.

"Zerbait ez bazait gustatzen, ez dakit disimulatzen eta, pospoloa bezala, berehala pizten naiz"

Proba-Leku
Neapaindegia - Estetika



Probaleku 3, 1A
Tel. 943170542

ITZE
OPTIKA
AUDIO



Entzumenaren doako azterketak
Audifonoetan azkenengo teknologia

Enter
INFORMÁTICA

SALMENTAK
IRAKASKUNTZA
ZERBITZU TEKNIKOA

VI. Mendeurrena 19, behea
943 17 90 37
enter@informaticaenter.com

solozabal
tabakoak



torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33



LA FORJA KAFETEGIA

1961

E R M U A

Lagun artean erretratatzeko, atzean duten Renault etxearen Dauphine modeloa "Alargunen kotxea" bezala ezagutzen zen, errepideetan izandako istripuen ondorioz alargun geratu ziren emakume ugariei erreferentzia eginez. Ezkerretik eskumara begiratuta tente daude Isidro Moradillo, Jose Martín Banzo, Jose Luis Olañeta eta Jose Luis Mas. Makurtuta Roberto Azpiri eta Jesusin Izarra.



1959

M A L L A B I A

Argazki honetan agertzen dira 1959ko martxoaren 29ean Mallabiko Andra Mariaren elizan Lehen Jaunartzea egin zutenak. Urte berean Gereako parrokian beste seik egin zuten.

Argazkian agertzen dira: Miguel Angel Olalde, Maria Angeles Urzuriaga, Sabin Olalde, Mila Amillategi, Nieves Arregi, Arrate Txurruka, Lurdes Txurruka, Enrique Aranzibia (?), Miren Mallabiabarrena, Maria Angeles Arriaga, Inmaculada Abendibar, Asun Antxia, Maria Angeles Mallabia, Mari Carmen Zubiate, Jose Antonio Areitioaurtena, Jose Gerrikabeitia, Jose Luis Aranzeta, Joaquín Biritxinaga, Mari Tere Milikua, Julita Elgezua, Mari Carmen Aranburu, Maria Isabel Elgezua, Ana Mari Astarloa, Maria Jesus Garitagoitia, Jose Ignacio Pradera (?) eta Julian Urrutxurtu.

IRAGARKI LABURRAK

LAN ESKAINTZAK

Odontologo orokorra behar da Ermuko hortz klinika baterako, astean jardun baterako edo birako. Bidali CVa niklinika@gmail.com helbidera.

LAN BILA

DBH eta Lehen Hezkuntzako matematikak, euskara eta beste ikasgaietako klaseak ematen ditut arratsalde. C1 ingelesa eta euskara. 688739358

Neska euskalduna eskaintzen da haurrak goizez zein arratsalde zaintzeko. Esperientzia eta magisteritza ikasketekin. 648625209.

Mutil langile eta arduratsuak bere burua eskaintzen du pertsona nagusiak zaintzeko. Esperientziarekin. Atsegina eta adikorra. 632 708 954



Iragarkia edo zorion-agurra kaleratzeko, bidali mezu elektronikoa helbide honetara: drogeten@gmail.com
Azken eguna: **Ekainaren 20a.**



Apirilaren 25ean. Zorionak gure **Naia** maitea 10. urtebetetzean!! Asko disfrutatu eguna eta jarraitu hain jatorra izaten! Aita eta amaren partez.



Maiatzaren 27an Zorionak sorgintxo!!!! Ondo pasa zure urtebetetzean. Asko maite zaitugu. Muxu handi bat etxekoan partez.



Maiatzaren 31n Zorionak **Manex!** 3 urte txapeldun! Aitatxo, amatxo eta Mararen partez. Asko maite zaitxugu!



Maiatzaren 5ean Zorionak **Uxue!** 3 kandela zure pasteltxoan, zu bai neska handixa! Gozatu zure egunaz, gure martxosa! Patxo eta besarkada erraldoi bat, Anderren partez bereziki!



Maiatzaren 11n Zorionak **Enara!** Gure etxeko sorgintxoak 3 urte bete ditu! Maite zaitugu pilo bat. Patxito haundi bat ama, aita, Misfits eta familia osoaren partez.



Ekainaren 2an Zorionakkk **Xuan!!!** 6 urte jada!!! Asko maite zaitugu, etxeko guztion partez!



Maiatzaren 31n Zorionak politte! Egunderrera auki daixule! Segi oin arte bezain alai eta jator! Maitte zaittugu!



- Akordeoia
- Gitarra
- Pianoa
- Biolina
- Gitarra elektrikoa
- Saxofoia
- Biolontxelo
- Gitarra baxua
- Trikitrixa
- Bonbardino
- Lengoia musikala
- Tronboia
- Flauta
- Klarineta
- Tronpet
- Kantua
- Panderoa
- Txistua
- Perkusioa

MUSIKA ESKOLA

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00

albokamusikaeskola@hotmail.com

Infreñu Taberna



Kardenal Orbe plaz
943 174584
www.infretaberna.com



SEHIGA

PROTECCIÓN LABORAL
PLAN BARRERAKO
ORDENADURA

Goienkale kalea (Ermua)
Tel: 943 172 454
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

ARRIETA CORDEVI

Etxetresna elektrikoak,
telebistak,
musika-ekipoak...

...prezio eta kalitate
ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA

Asteartetik ostiralera
00-12:00 15:00-19:00
arunbata 8:30-13:00

943 170474

ileapaindegia

Silvia

peluquería

688819336

ANTZERKIA

Hilak 13:
"Cuenta atrás", Banarte taldearen esku-tik. 20:30ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 8 €. Antolatzailea: Ermuko Uda.

Hilak 27:
Ikasturte amaierako emanaldia. 19:00etan. Ermua Antzokian. Sarrera dohainik. Antolatzailea: Sutegi.

MUSIKA

Hilaren 17tik 19ra:
Ikasturte amaierako kontzertuak: Albo-ka Musika Eskolako ikasleak. 19:00etan. Lobiano kulturgunean. Antolatzailea: Al-boka Musika Eskola.

Hilak 27 eta 28:
Elektrojaia. Martxoaren 8a plazan (28) eta Betiondoko aparkalekuan (29). 17:00etatik aurrera. Antolatzailea: Elek-trojaia elkarte.

DANTZA

Hilak 6:
Txindurri taldearen 50. urteurrena: hain-bat ekitaldi (ikus ondoko kartela). An-tolatzailea: Txindurri Dantza eta Txistu Taldea.

Hilak 6:
Ikasturte amaierako emanaldia: Taupa-da Dantza Eskolako ikasleak. 19:30ean eta 21:30ean. Ermua Antzokian. Sarrera dohainik. Antolatzailea: Taupada Dan-tza Eskola.

Hilak 7:
Cumbia eta salsa erakustaldia. 10:30ean. San Pelaio plazan. Antolatzailea: Ermu-ko Udala.

Hilak 7:
Txindurri taldearen 50. urteurrena: hain-bat ekitaldi (ikus ondoko kartela). An-tolatzailea: Txindurri Dantza eta Txistu Taldea.

Hilak 8:
Txindurri taldearen 50. urteurrena: hain-bat ekitaldi (ikus ondoko kartela). An-tolatzailea: Txindurri Dantza eta Txistu Taldea.

ERAKUSKETA

Hilaren 16tik 29ra:
Margoak: Mugarte taldearen lanak. 18:00etatik 20:00etara. Lobiano Kultur-gunean. Antolatzailea: Mugarte.

BESTELAKOAK

Hilaren 9tik 15era:
Gastronomiari buruzko jardunaldiak: hainbat ekitaldi. Antolatzailea: Lobia-no Gastronomía Elkartea.

Hilaren 13an eta 14an:
Ongarai auzoko jaiak. Hainbat ekitaldi. Ongarai eskolako patioan. Antolatzaile-a: Ongarai auzoko jai batzordea.

Hilak 15:
Haize zabaleko margo lehiaketa. 9:00etatik aurrera. Antolatzailea: Mu-garte.

TXINDURRI: 50 URTE DANTZAN

EKAINAK 6, OSTIRALA
19:00 PATXANGO! elektroboranga

EKAINAK 7, LARUNBATA
12:00:
-IRUÑEKO ERRALDOIAK
-DANTZA poteoa
-Ermua KANTUAN
18:00 KUKAI dantza erakustaldia
20:00 FAN&GO erromeria
23:00 OPILAK

EKAINAK 8, IGANDEA
11:00 KALEJIRA herrian zehar
12:30 DANTZA ERAKUSTALDIA San Pelaion
15:00 BAZKARIA plazan
17:30 KITTUrekin plaza dantza

Hilak 23:
San Juan sua: hainbat ekitaldi. 22:00etan hasita. Orbe Kardinalaren plazan. Antolatzailea: Euskal Birusa.

Hilaren 20 eta 21an:
El Rozio erromeria: hainbat ekitaldi. San Pelaio plazan (21) eta Betiondoko apar-kalekuan (22). 11:00etatik aurrera. Antolatzailea: Andaluziako Kultur Zentroa.

Hilaren 28 eta 29an:
San Pelaio auzoko jaiak: hainbat ekitaldi. Antolatzailea: San Pelaio auzoko jai batzordea.

Patxi López



TXINDURRI
TALDEA
Tokian
tokiko

Otro Plan

como en casa

Erreserbak: 644 340 754

Iberikoetan
espezialistak

Mayte

VI Centenario 5 - ERMUA
943 172 412

PRO

arraindegia



ITSASKIAK
ARRAIN FRESKOAK
ETA IZOZTUAK

Zubiaurre, 21
943 17 16 96
ERMUA



AMALUR
FISIOTERAPIA

688 61 98 96
zeharkale 12 bajo
48260 ERMUA

IRENE ESQUÉ col.1666 EGOITZ FORMOSO col.1675



irale
Horts Klinika
Clínica Dental

C/ Zeharkalea, 8
48260 Ermua, Bizkaia
Tel. 943 17 71 34

OSASUN GIDA



**Odontologia
Fisioterapia**

943 578 617
615 793 717
www.irazuklinika.com



Zuri egokitzen
den odontologia
La odontología
que se adapta a tí

Dra. OLATZ GARCÍA ARREGUI col. nº 1264

- P.A.D.I
- IMQ
- SANITAS
- DENTYRED
- AZKARAN
- OCASO

☎ 943 17 04 04
✉ info@clnicasanpelayo.com
📍 San Pelayo Zeharkalea 5
48260 Ermua (Bizkaia)



OSTEOPATIA
Pablo Lucena
Osteopata Eur Ost D0

📞 617 680 156
info@osteopatialucena.com
Probaleku 5 - Ermua (Bizkaia)



LEIRE MAYORA
PODOLOGOA

Erdikokale 1, 1. A
48260 Ermua
☎ 943 17 47 44

Osasun Gidan agertu nahi baduzu,
deitu 943 17 93 50 edo 688 63 28 76 telefonoetara,
edo idatzi drogeten@gmail.com helbidera.

Antxustegi

Zure ametsak sukaldatzen!



www.antxustegi.com



Antxustegin behar duzun dena topatuko duzu. Ez eman buelta gehiagorik; zatoz eta ezagutu gure sukalde aukera zabala!



ZERAMIKA
ETA HARRIA



LURZORU
LAMINATUA



MARGOZTUTAKO
PARERA



BAINUGELA



BURDINDEGIA



ERAIKUNTZARAKO
MATERIALAK



SUKALDEAK

Olaso Olasope, 5, industrialdea- 20870 Elgoibar - 943 743 344 / 943 740 692